

Xabier Amuriza

Pentsatzen bizi

Zure hilberriak, Joxe, zahar-etxe batera bisitan harrapatu ninduen. Han, Aquarius laranja bat igo behar nion bisitatuari. Hiru makina zeuden horman. Aurrez aurreko hormaren kontrara, egoiliar multzo bat, andre eta gizon, euren gurpil-aulkietan. Kafe-makina ez nuen behar. Beste biak era bitxian zeuden niretzat. Batean txanponak sartu, markatu eta abar, eta jeneroak ondoko beste makinan. Eskuak hegada galduan, ez nekien nondik hasi, eta gurpil-aulkien multzotik keinuak eta hitz modukoak zetozen. Markatu nuen, eta Santiveri bat irten zen. Galleta pakete bat. Orain, gurpil-aulkien multzoan, makuluak ere goian zebiltzan. Bai, bai! Eskertzen dut zuen lagundu nahia, baina ez dizuet ulertzen. Hau ezintasun ziztrina! Non egotea dagokit? Multzo horretan ala harago?

Filosofoa ere bazinenez, larritasun existentzial bat utzi didazu. Iritsiko ote naiz zure adin-mugara? Gaingituko ote dut bera? Berrogeita bost egun falta zaizkit. Orain gutxiago, egunak aurrera baitoaz. Behar bada, idazki hau agertzen denean, egunak agortuak izango dira. Zer diozu, Joxe?

Pentsatzen bizitzea suerte handia da, eta aurpegian nabari zitzaizun. Pentsatzea jardun zoragarria baita. Beherago zernahi dago. Gorago ez dirudi ezer dagoenik. Pentsatzeko gaitasuna galtzen dudanean, jo nazazue hiltzat. Zuk, Joxe, oso ondo pentsatu zenuen nola joan ere, ohiko hiletan albotik. Uste dut askok estimatu genuela joateko era jakintsu hori. Izango dituzu, tokian-tokian, aipuak eta omenak, JAKIN honetan bezala.

Pentsatzearen gozamenak badu ifrentzu bat ere, Joxe, behin edo behin sentituko zenuena. «Gozatzen dut pentsatzen, baina pentsatzen dudanak balio ote du ezertarako?». Orain guztiek baietz esango dizute, baina ez fida. Pentsamenduaren historiak munduaren historia gidatu

duela irakurtzen dudanean, ondoez batek jotzen nau. Adibidez, zer dakite gehienek (dakiten gehienek) Sokratesi buruz? «Bakarrik dakit ez dakidala ezer». Bai aurkikuntza! Platonengana jo behar, zerbait jakiteko. Zer dakite gehienek Platonez? «Harpearen mitoa». Zer da hori? Dakienari galdetu beharko. Aristotelesi, adibidez. Nik dakidana da Aristoteles izan zela Alexander Handiaren hezitzailea, eta hori historiako kriminalik handienetakoa.

Shakespeare? «Izan ala ez izan». Bai aurkikuntza hori ere! Haren besterik? Izarrak goian. Egunez bada, horixe ere ez. Hobbes? «Homo hominis lupus». Berri zaharregia. Pascalentzat, «gizakia, kanabera pentsalari bat». Haizeen mende. Zuk, Joxe, ezagutuko zenuen ospedun filosofo espainol bat, zioena: «Dios es la profundidad del ser». Hori pentsamendu bat al da? Ez da mirari Gametxo donostiarrak idaztea: «Adiós a la filosofía». Eta Arestik? «Nire aitaren etxea». Esan zezakeen «gure aitaren etxea» ere! Eta Urretabizkaiak, «Zergatik panpox». Eran-tzuna, galderan bertan. Axularrek? «Gero». Hori bakarrik? Sarrionandiak: «Ni ez naiz hemengoa». Urteetako misterio bat. Emakume anonimo batek: «Senarra, bat ere gehiegi da». Eta horrela. Norbaitek horiek guztiak ilaran botatzen baditu, dakien guztia dela esan gabe, irteeran pentsatuko dute: «Bai jakintsua!».

A, Joxe! Descartes. «Pentsatzen dut, beraz, banaiz». Hori bai! Ez zen haren intentzioa izango, baina pentsatzea izate ederra da, zuk ondo frogatuta utzi diguzunez. Beharbada, zutaz ere gehienek (dakiten gehienek) «Espainolak eta euskaldunak» gogoratuko dute. Ez dio ardua. Ez egin jaramonik. Nahi duenak hartuko du, eta behar duena ez da iritsiko. Nire kezka esentziala da orain, zahar-etxetik bueltan, zure adin-muga gaindituko ote dudan. Hala bada, atseginez korrituko dut zure bizitza ibiltaria (pixka bat bohemioa), eta errepasatuko zure pentsamendu amaigabea.